


Kalbarioa. Zumarreko Andra Mariaren basiliza. Quintanilla Gaubea Calvario. Ermita de Nuestra Señora del Olmo. Quintanilla de Valdegovía



Obra kontserbazio egoera txarrean zegoen. Haritz egurrezko bi taulaz osatuta dago, hiru miru buztan txikiz muntatuta. Konposizio piktorikoa prestakin zuriko geruza baten gainean dago, eta teknika piktorikoa arrautza tenplea da. Gainazal piktorikoak hutsuneak edo kolore galerak zituen, zurezko euskarria agerian uzten zutenak. Gainera, zenbait pigmentu motelduta eta kaltetuta zeuden, hala nola hezetasunaren ondorioz erabat pitzatuta zeuden urdinak. Obraren perimetro osoa zentimetro bat inguru polikromatu gabe zegoen, beharbada erretaularen batean kokatuta egon zelako.



Kontserbazio egoera. Aurrealdea eta atzealdea
Estado de conservación. Anverso y reverso

Objektua ■ Objeto

Kalbarioko taula
Tabla del Calvario

Egilea ■ Autor

Ezezaguna
Anónima

Kronologia ■ Cronología

XVII. mendea
Siglo XVII

Jatorria ■ Procedencia

Zumarreko Andra Mariaren basiliza.
Quintanilla Gaubea.
Ermita de nuestra señora del Olmo.
Quintanilla de Valdegovía

Azalpena ■ Descripción

Kristo gurutziltzatua, eta gurutzearen bi aldeetan,
Done Joan, ezkerrean, eta Ama Birjina, eskuinaldean.
Cristo crucificado y a ambos lados de la cruz
San Juan a su izquierda y la Virgen María a su derecha.

Esta obra, que presentaba mal estado de conservación, está realizada con dos tablas, de madera de roble, ensambladas entre sí por tres pequeñas colas de milano. La composición pictórica se asienta sobre una capa de preparación blanca y la técnica pictórica es un temple al huevo. La superficie pictórica tenía lagunas o pérdidas de color que dejaban ver el soporte de madera. También se aprecia degradación y alteración de algunos pigmentos, como los azules que se encuentran totalmente agrisados como consecuencia de la humedad. Todo el perímetro de la obra está sin policromar alrededor de un cm y parece que ha estado enmarcada o colocada en algún retablo, etc.



Egindako azterlanak

UV luminiszentziaren bidez, azalera piktorkoaren kontserbazio egoera, berniza duen ala ez eta pintura ukituen presentzia aztertu ahal izan da. Ez da berniz geruzarik detektatu.

Polikromia laginen analisiak honako hauek identifikatu ditu: azurita naturala Ama Birjinaren mantuan, eta laka gorria, lur gorria eta bermiloia Done Joanen kapa gorrian; teknika piktorkoa arrautza tenplea dela ikusi da.


Estudios realizados

La luminiscencia UV ha permitido estudiar el estado de conservación de la superficie pictórica y la presencia o no de barnices y retoques pictóricos. No se ha detectado capa de barniz.


El análisis de muestras de policromía ha identificado el empleo de azurita natural en el manto de la Virgen y laca roja, tierra roja y bermellón para la capa roja de san Juan, así como la técnica pictórica que se trata de un temple al huevo.



Obra UV argipean
La obra bajo luz UV



TCQ-1, 500 X



TCQ-2, 500 X

Pintura geruzen laginen irudi estratigrafikoa: urdina eta gorria.

Imagen estratigráfica de muestras de capas pictóricas: azul y rojo.

Tratamendua

Euskarria eta estratu polikromoa egonkortu dira; gainazaleko zikinkeria kendu da, baita iztukatua ere; kolore hutsuneak leheneratu dira, eta, amaieran, babesa jarri zaio.



Predelaren pintura baten xehetasuna. Esku hartu baino lehen eta ondoren.
Detalle antes y después de la intervención

Ondasun historiko artistikoak kontserbatzeko edo zaharberritzeko Arabako Lurralde Historikoko eta Trebiñuko enklabe toki erakundeek sustatutako esku hartzeetarako dirulaguntzen 2019ko deialdi publikoaren bidez zaharberritu da obra hau. Esku hartzea Artyco Arte/Conservación/Restauración enpresak egin du, Zaharberrikuntza Zerbitzuaren zuzendaritza teknikoaren pean.

Tratamiento

El tratamiento ha consistido en la estabilización del soporte y del estrato policromo, la eliminación de suciedad superficial, así como el estucado, la reintegración de las lagunas de color y la protección final.



Esta obra se ha restaurado a través de la convocatoria de subvenciones para intervenciones de conservación y/o restauración de bienes históricos -artísticos promovidas por las entidades locales del Territorio Histórico de Álava y del Enclave de Treviño del año 2019. La intervención la ha realizado la empresa Artyco Arte/Conservación/Restauración bajo la dirección técnica del Servicio de Restauración.